

10.07 - 12.14

GETXOARTE

INFO:  
ANTIRUMORES@GETXO.EUS — GETXO.EUS/ANTIRUMORES

BITARTEKARITZA PROGRAMA  
PROGRAMA DE MEDIACIÓN

# gaz-teak



Doako alea

328 Zb  
www.getxo.eus

>> 2018ko Urria



HORMAN  
POSTER



## Eraikitzen gaituzten hitzak

14 eta 18 urte bitarteko gazteentzako bitartekaritza eta arte eszenikoen programa, HORMAN POSTER kolektiboak zuzendua.

## Las palabras que nos construyen

Programa de mediación y artes escénicas dirigido a chicos y chicas de 14 a 18 años. Guiado por el colectivo HORMAN POSTER.

# Beldur Barik lehiaketaren bederatzigarren edizioa

Beldur Barik jarrera partekatutako goibururekin, antolatu du Beldur Barik programak Beldur Barik Jarrera! lehiaketaren 9. edizioa. Lehiaketaren xedea da emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerei aurre egiten dioten neska-mutilen arte-adierazpen mota oro onartzea, baloratzea eta bultzatzea. Lanak errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzukizunean eta indarkeria sexistaren gaitzespen irmoan oinarritutako jokabide eta jarrerak izan behar dira.

Edozein adierazpen artistiko onartuko da, baldin eta ikus-entzunezko euskarrian aurkezten bada: flashmob, errezitatutako poemak edota kameraren aurrean irakurritako hausnarketazko testuak, bideoak, fotografiak, fotomuntaketa, fotonobelak, lip-dubak, dantzak, film laburrak, animaziozko proiektuak, proiektuen edota artelanen aurkezpenak, performanceak, hiri esku-hartzeak etab.

12-26 urte bitarteko gazteek hartu dezakete parte, hurrengo bi kategoriatan: 12-17 urte eta 18-26 urte. Pertsona eta talde bakoitzeko, gehienez, 3 proiektu aurkeztu daitezke. Lan guztiak ikus-entzunezko formatuan aurkeztu beharko dira, Youtube edo Vimeo plataformetarako esteka erraztuz eta gehienez 5 minutuko iraupena izango dute, kredituak barne.

Udalak ekimenari buruzko sentsibilizazio saioak antolatuko ditu ikastetxeetan.

<http://beldurbarik.org/materialak/oinarriak18.pdf>

## BEKAK SARIAK

**\*600 Beka batxilergoa Kanadan eta AEBetan ikasteko,** Amancio Ortega Fundazioak deituta, DBHko 4. mailako ikasleentzat. Horiek 3. mailaren batez besteko nota 7 edo gehiago eduki behar izan dute eta ingelesean 8 edo gehiago (atzerrian ikasi izan gabe). Batxilergo-ko lehenengo maila Kanadan edo Amerikako Estatu Batuetan egiteko bekak dira. Eskerak aurkezteko epea urriaren 30era arte egongo da zabalik. Informazio gehiago: 2018ko irailaren 24ko BOE, 231 zka. <https://becas.fortega.org>

**\*Gazte asmatzaileen 1. FNAC Lehiaketa,** estatuan DBHko I., 2., 3. eta 4. Mailatan Teknologia, Programazio eta Robotika ikasten duten ikasleentzat. Proiektu teknologiko berritzaileak sarituko dira. Gurasoen edo tutore legalen baimena eskatzen da. Proiektuak [fnac25@atrevia.net](mailto:fnac25@atrevia.net) helbidera bidali beharko dira, formato librean, deialdian aipatzen den informazio guztiarekin, azaroaren 4ra arte. Proiektu irabazleak FNACen gastatzeko 800€-ko txartela jasoko du, bigarrenak 500€-koa eta hirugarrenak 300€-koa. Informazio gehiago: [FNAC25@atrevia.net](mailto:FNAC25@atrevia.net) / 673339997 / [www.fnac.es](http://www.fnac.es)

**\*Google Science Fair Lehiaketa.** 13 eta 18 urte bitarteko gazteek har dezakete parte lehiaketa honetan. Epea abenduaren 12ra arte egongo da zabalik. Hurrengo gaiet buruzko lanak edo ikerketak aurkez daitezke: ingurunea, teknologia, robotika, osasuna, elikadura, gai sozialak, adimen artifiziala, bidaiak eta energia. Mota desberdinetako 179 sari banatuko dira. Informazio gehiago eta aurreko edizioetan saritutako proiektu batzuen adibideak: <https://www.google-science-fair.com/intl/es/#>

## Romoko Gaztelekuaren Programazioa

Uria

**Hilak 5, ostirala:** TAILERRA: MALABARRAK  
**Hilak 6, larunbata:** ASANBLADA  
**Hilak 7, igandea:** TXAPELKETA: JUST DANCE  
**Hilak 7, 14, 21 eta 28, igandeak:** TAILERRA: KOMIKIA  
**Hilak 9, asteartea, 11, osteguna, eta 24, asteazkena:** TAILERRA: GAZTELEKUA MARGOTU  
**Hilak 13, larunbata:** IRTEERA: LASERGUNE  
**Hilak 14, igandea:** TXAPELKETA: PIN PON  
**Hilak 18, osteguna, eta 19, ostirala:** TAILERRA: BIDEO SORKUNTZA GETXOEXPRESS  
**Hilak 20, larunbata:** TAILERRA: YOGA  
**Hilak 27, larunbata:** IRTEERA: FORESTAL PARK  
**Hilak 28, igandea:** MERENDOLA: URRIKO URTEBETETZEAK

## Algortako Gaztelekuaren Programazioa

Uria

**Hilak 4, osteguna, eta 5, ostirala:** GETXOEXPRESS  
**Hilak 6, larunbata:** SASKIBALOI TXAPELKETA  
**Hilak 7, igandea:** KULTURARTEKO ANTZERKIA  
**Hilak 10, asteazkena:** ESKULANA: ORRI-MARKATZAILEA  
**Hilak 11, osteguna:** ASANBLEA  
**Hilak 13, larunbata:** ZINEKLUBA: MISIÓN IMPOSIBLE  
**Hilak 16, asteartea, 25, osteguna, eta 30, asteartea:** DROGEI BURUZ HITZ EGITEN.  
**Hilak 19, ostirala:** TAILERRA: ANIZTASUN SEXUALA  
**Hilak 20, larunbata:** IRTEERA: LASERGUNE  
**Hilak 21, igandea:** DARDO TXAPELKETA  
**Hilak 26, ostirala:** MASTER CHEF: SAMOSA  
**Hilak 27, larunbata:** IRTEERA: KULTURARTEKO GRAFITIA  
**Hilak 31, asteazkena:** HALLOWEEN JAIA



## ERAIKITZEN GAITUZTEN HITZAK

Identitatea?

Aniztasuna? Kultura? Adina? Sexua? Generoa? Arraza? Klasea? Sexu-orientazioa? Hizkuntza?

Estereotipoak? Aurreiritziak? Sare sozialak?

Urriaren 7an, igandea, GetxoArteko EL RESPIRADEROn abiaraziko den sormen-prozesu baten parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu. Areetako Geltokia plazan izango da 14:00etatik 16:30era (bazkaria barne).

HORMAN POSTER kolektibo artistikoak zuzenduko du prozesua, eta irudian, antzerkian, dantzan, musikan, sare sozialetan, multimediaren munduan eta abarretan interesa duten 14 eta 18 urte bitarteko gazteentzat pentsatu da.

6 lan-saio egingo dira abenduaren 14an (20:00- Andrés Isasi Musika Eskola) banakako eta taldeko identitatei buruzko hausnarketa eragingo duen sorkuntza kolektibo bat erdiesteko

[www.getxo.eus/ekintzak](http://www.getxo.eus/ekintzak)

+ Info: [antirumores@getxo.eus](mailto:antirumores@getxo.eus) 944660151

## Irisgarritasunaren aldeko mapeoa Gazteria Zerbitzuarekin

FEKOOR Gutxitasun fisiko edo/ta organikoak duten Bizkaiko pertsonen Elkartearen guztiontzako irisgarritasunaren aldeko kanpaina egiten ari da 2015etik *Somos Accesibles/Iris-*

*garriak gara* izenarekin.

Kanpaina honek ikutu positiboa izan nahi du eta bere helburua gure herri eta hirietako pertsona guztientzako irisgarritasun eta diseinuan

ikusitako praktika onak eba-luatu eta aitortzea da. Haste-ko, guztiontzako irisgarritasuna eta inklusioa bermatzen dituzten lokalak hartuko dira kontuan.

Jadanik Bilboko Alde Zaharrean, Deustu eta Indautxu auzoetan, Barakaldon edo Galdakaon egin da. Zehazki Romo eta Areta auzoak mapeatuko dira eta Gazteria Zerbitzuak boluntario bilaketan lagunduko du. 3 lagunek osatuko dituzte taldeak eta horiek tabernak, jatetxeak eta dendak aztertuko dituzte. Guztira 16 lagun behar dira datu bilketa lanok egiteko (establezimendu bakoitzeko fitxa bat bete behar da) eta argazkiak ateratzeko.

Mapeoa datorren **urriaren 9an, asteartean**, egingo dute gazteek, **goizeko 10:30etik 13:00etara** bitartean Areetako Geltokia plazatik abiatuta.

Parte hartzeko interesa duten gazteek mezu bat bidali beharko dute [gazteria@getxo.eus](mailto:gazteria@getxo.eus) helbidera, lehenbailehen.



## 12 getxotar Zurrumurruren kontrako III. Topaketan

Hamabi gazte getxotarrek, Romoko Ziztu Bizian Eskaut taldeko begirale batek lagunduta, parte hartu zuten Iruñean irailaren 6tik 9ra bitartean ospatutako Zurrumurruren kontrako III. Topaketan, kultur aniztasuna eta kohesio soziala sustatzearren alde. Guztira, 13 eta 21 urte bitarteko 60 neska eta mutil bildu ziren, Getxo, Bilbo, Cartagena, Tenerife, Barakaldo, Donostia eta Iruñekoak. Sabadell eta Getxon burututako aurreko esperientzien ondoren, Topaketaren hirugarren edizioan gazteek esperientziak partekatu zituzten eta baita udalerrietan bizikidetzatza oztzatzen dituzten zurrumurruei aurre egiteko ideiak ere, baliabideak eta sareak sortze aldera.

